



Araugintzako ebaluazio txostena

Informe de evaluación normativa

1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituena.

Norma Foral 1/2018, de 10 de mayo, por la que se introducen modificaciones en diversas normas tributarias

Txosten honen bitartez bete nahi da uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan ezarritakoa, bertan xedatzen baita zenbait foru arauren kasuan Batzar Nagusiek araugintzako ebaluazioa egin behar dutela, indarrean jarri eta urtebetera.

A través de este informe se trata de dar cumplimiento al mandato legal recogido en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según el cual, ciertas normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales, una vez transcurrido un año desde su entrada en vigor.

Sarrera

Kontuan izanik zein zen 2018an lurraldeak bizi zuen testuinguru ekonomikoa, jarduera ekonomikoa indarra hartzen hasita zegoela,

Introducción

Teniendo en cuenta el contexto económico de 2018 del territorio, marcado por una apreciable reactivación de la actividad



egokitzat jo zen aldaketak sartzea zenbait figura tributariotan, fiskalitateak ekonomiaren suspertze horretan lagundu dezan; inoiz ere ahaztu gabe beharrezkoa dela behar besteko finantza baliabideak izatea gaurko ongizatearen estatuaren gastuei eta zerbitzu publikoei eusteko. Hori guztia garai batean jarritako helburuak betetzeko egiten da: Gipuzkoa modernoago, solidarioago, jasangarriago eta lehiakorrago bat lortzea, zerga sistema justuago, progresiboago eta efizienteago bat dela medio.

Halaber, neurriak hartu ziren zerga araudia Euskal Zuzenbide Zibilaren Legean xedatutakora egokitzen jarraitzeko, eta neurriak ezarri ziren zerga elusioari, zerga oinarrien higadurari eta mozkin enpresarialen lekualdaketa maltzurri buruzko zerga esparruko obligazioak betetzen jarraitzeko. Esparru horiek nazioarteko foroetan bultzatu ziren, ELGAN eta Europar Batasunean, esate baterako.

económica, se consideró conveniente introducir modificaciones en diversas figuras tributarias, para contribuir desde la fiscalidad a la consolidación de la recuperación económica; pero sin perder de vista, en ningún caso, la necesaria suficiencia financiera para el mantenimiento de los gastos y servicios públicos propios del estado del bienestar vigente. Y todo ello con el fin de cumplir los objetivos fijados en su día: conseguir una Gipuzkoa más moderna, solidaria, sostenible y competitiva, mediante un sistema fiscal más justo, progresivo y eficiente.

Asimismo, se tomaron medidas para seguir avanzando en la adaptación de la normativa fiscal a lo dispuesto en la Ley del Derecho Civil Vasco, y se implementaron medidas dirigidas al cumplimiento de las obligaciones derivadas del marco fiscal para la prevención de la elusión fiscal, la erosión de bases imponibles y el traslado artificial de beneficios empresariales, impulsados en los foros internacionales (OCDE y UE).



Aztertutako foru arauak sartu zituen aldaketa nagusiak honako hauek izan ziren.

Las principales modificaciones que introdujo la norma foral analizada fueron las siguientes.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

Con efectos a partir del 1 de enero de 2017

- Aldatu egiten da nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerentzat zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren metodoa. Aldaketa horren ondorioz, jarduera horien titularrek modalitate erraztuan kalkulatzeko badute beren etekin garbia eta aurreko ekitaldian izan duten eragiketa bolumena ez bada izan 30.000 euro baino handiagoa, beren etekin garbia kalkulatzeko %75eko gastu forfaita aplikatuko dute lortutako sarreren gainean,

- Se modifica la modalidad simplificada del método de estimación directa de las actividades agrícolas y ganaderas. Así, las actividades que determinan su rendimiento neto por la modalidad simplificada y que en el ejercicio anterior hubieran tenido un volumen de operaciones no superior a 30.000 euros, determinarán su rendimiento neto aplicando un forfait de gasto del 75% sobre los ingresos obtenidos, con exclusión de la



eta ezingo dute beste ezein gasturik kendu. Bestalde, aurreko ekitaldian eragiketa bolumen hori gainditzen duten zergadunek %35eko forfaita jarraituko dute aplikatzen sarreren eta gastuen arteko diferentziaren gainean.

deducibilidad de cualquier otro gasto. Mientras que, las actividades que en el ejercicio anterior hubieran superado dicho importe de volumen de operaciones, continuarán aplicando un forfait del 35% sobre la diferencia entre ingresos y gastos.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

- Lekualdatutako langileen araubidean, posible izango da hura aplikatzea langilea ikerketa eta garapen jarduerak egiteko ez ezik jarduera zientifikoak edo izaera tekniko edo finantzariokoak egiteko ere etortzen denean Gipuzkoako lurraldera. Eta lekualdaketa eragiten duen lan harremanetik ondorioztatutako etekin osoak %15ean salbuesten dira.

Con efectos a partir del 1 de enero de 2018

- En el régimen de personas trabajadoras desplazadas se posibilita su aplicación cuando el desplazamiento a territorio guipuzcoano tenga su causa en la realización no solo de actividades de investigación y desarrollo como hasta ahora, sino también de actividades científicas o de carácter técnico o financiero; y se establece una exención del 15% de los rendimientos íntegros derivados de la relación laboral que motiva el desplazamiento.



- Errenta salbuetsiei dagokienez, Gizarte Segurantzak aitortu eta salbuetsita dauden familia prestazioen barruan sartzen dira funtzionario publikoek lanaldiaren murrizketa eskatzeagatik jasotzen dituzten ordainsariak, murrizketa hori minbiziak edo beste gaixotasun larri batek ukitutako seme-alaba adingabeak zaintzeko eskatzen denean. Gizarte Segurantzak kontzeptu horregatik aitortzen duen prestazioaren gehieneko zenbatekoa izango da muga. Horrez gain, aitatasun prestazioei amatasun prestazioetarako araututa dagoen salbuespen bera aitortzen zaie.
- Dentro de las rentas exentas, se extiende la exención de las prestaciones familiares reconocidas por la Seguridad Social a las retribuciones percibidas por funcionarios públicos y funcionarias públicas por reducción de la jornada de trabajo por permiso por cuidado de hijos menores o hijas menores afectadas por cáncer u otra enfermedad grave, con el límite del importe de la prestación máxima que reconoce la Seguridad Social por el mismo concepto. Además, se reconoce la exención a las prestaciones de paternidad en los mismos términos ya regulados para las prestaciones por maternidad.
- Enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeagatik aplikatzen den kenkarian, ahalbidetzen da inbertsiogileak bere ezagutza enpresarial edo
- En la deducción por inversión en empresas de nueva o reciente creación, se abre la posibilidad de aportar, en su caso, conocimientos empresariales o profesionales sin



profesionalak jartzea zergadunaren eta entitatearen arteko akordioarekin inolako loturarik eduki gabe; sorrera berriko enpresaren kontzeptua birdefinitzen da, hiru urtetik bost urtera zabaltzen baita aintzat hartzen den denbora tartea; eta, azkenik, erregela bat ezartzen da inbertsioaren pizgarriak ez daitezen bateragarriak izan inbertsiogilearen eta entitate partaidetuaren artean egon daitekeen beste harreman ordaindu batekin, izan entitate hori laborala izan merkataritzakoa, salbuespen batzuk eginda.

sujección al acuerdo de inversión entre la persona contribuyente y la entidad; se redefine el concepto de empresa de reciente creación, ampliando su ámbito temporal de tres a cinco años; y se establece una regla para incompatibilizar la incentivación de la inversión con otra relación remunerada entre la persona inversora y la entidad participada, sea esta laboral o mercantil, con determinadas salvedades.

- Kenkari berri bat sortzen da hazkunde ahalmen handiko entitateak finantzatzeagatik aplikatzeko. Mikroenpresak edo enpresa txiki edo ertainak diren eta merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren entitateak finantzatzea hobaritzen da haren bidez. Kenkaria dirutan ordaindutako zenbatekoaren %30
- Se crea una nueva deducción por financiación a entidades con alto potencial de crecimiento, dirigida a incentivar la financiación de determinadas entidades que tengan la consideración de microempresa, o de pequeña o mediana empresa y que no se negocien en ningún mercado organizado. La deducción podrá



edo %15 izan daiteke, baldintza batzuk betetzen diren ala ez ikusita. Gehienez kendu daitekeen oinarria milioi bat eurokoa da; eta urteko kenkaria mugatzen da, eta ezartzen da kenkariak ezin duela berekin ekarri urteko kuota likidoa kuota osoaren %30etik beherakoa izatea.

ser del 30% o del 15% de las cantidades satisfechas en metálico, dependiendo de que se cumplan una serie de requisitos. La base máxima de deducción es de 1 millón de euros; y la aplicación anual de la deducción no podrá dar lugar a una cuota líquida anual inferior al 30% de la cuota íntegra.

- Aldatu egiten dira kapital higiezinaren etekin garbia zehazteko erregelak, Errentamendu Hiritarren azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan etxebizitza errentamendutzat hartutakoetatik eratorritakoez besteko etxebizitzetatik datozen etekinei buruzkoak. Izan ere, orain arte, etekin garbia kalkulatzeko, diru sarreretatik beharrezko gastuak eta erabilpenaren edo denboraren poderioz eragindako narriaduraren zenbatekoa kendu behar zen. Aurrerantzean, berriz, 29/1994 Legearen 2. artikuluan

- Se modifican las reglas de determinación del rendimiento neto del capital inmobiliario correspondientes a los rendimientos procedentes de viviendas distintos de los derivados de los considerados como arrendamiento de vivienda en el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos. Hasta ahora dicho rendimiento neto se calculaba por diferencia entre ingresos y los gastos necesarios y el importe del deterioro sufrido por uso o transcurso del tiempo. A partir de ahora, que pasan a calcularse de



aipatutako etxebizitzetatik eratorriak diren etekinen modu berean kalkulatu dira. Dena den, horrela kalkulatu den etekin garbiak zergaren zerga oinarri orokorrean konputatzen jarraituko du, errenta orokortzat hartzen jarraituko baita.

la misma forma que los rendimientos procedentes de las viviendas a las que se refiere dicho artículo 2 de la Ley 29/1994. No obstante, el rendimiento neto así calculado continuará computando en la base imponible general del impuesto, al continuar teniendo consideración de renta general.

- Hamabostetik hogeita hamar urtera zabalitzen da inbertsioengatik eta beste jarduera batzuegatik ezarritako kenkariak aplikatzeko epea, eta jarduera ekonomikoetatik datozen etekinen saldo negatiboa iturri bereko saldo positiboekin konpentsatzeko epea,
- Se amplía de quince a treinta años el plazo para aplicarse las deducciones por inversiones y por otras actividades, y para compensar el saldo negativo de los rendimientos derivados de actividades económicas con saldos positivos de la misma fuente.
- Aldatu egiten da 30 urtetik beherako zergadunek ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik ezarritako kenkaria, aurrerantzean %25etik %30era igoko baita; era berean, kenkari muga 2.000
- Se modifica la deducción por alquiler de vivienda habitual para contribuyentes que tengan una edad inferior a 30 años, que pasa del 25% al 30%, incrementándose asimismo el límite de deducción de



eurotik 2.400 eurora igotzen da.

2.000 a 2.400 euros.

Sozietateen gaineko Zerga

Arau igorpenak eguneratu eta izaera teknikoko beste aldaketa batzuk sartzeaz gain, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, proposamen nabarmenenak hauek dira:

- Finantza gastu garbien kengarritasuna mugatzen da: gehienez ekitaldiko mozkin operatibo garbiaren %30 izango da. Halere, kengarriak izango dira, edozein kasutan ere, ekitaldi fiskaleko finantza gastu garbiak 3.000.000 eurotako zenbatekoan.
- Aparteko mozkinak berrinbertitzean, ezabatu gauzatzeko aukera entitateen kapitalaren partaidetzak edo funts

Impuesto sobre Sociedades

Además de actualizar remisiones normativas e incluir otras modificaciones de carácter técnico, las propuestas más significativas, con efectos para los periodos impositivos que se inicien a partir del 1 de enero de 2018, son:

- Se limita la deducibilidad de los gastos financieros netos al 30% del beneficio operativo del ejercicio. No obstante, serán deducibles, en cualquier caso, los gastos financieros netos del periodo impositivo por importe de 3.000.000 de euros.
- En la reinversión de beneficios extraordinarios, se suprime la posibilidad de la materialización por adquisición de participaciones



propioen erosketa denean.

en el capital o en los fondos propios de entidades.

- Zerga oinarri positiboaren %20tik %10era murrizten da mikroenpresek beren tamainak eragiten dituen zailtasunen zerga konpentsazio gisa aplikagarri duten gastu kengarria. Dena den, araubide iragankorrean jasotakoari jarraituz, murriztapena %15ekoa izango da, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako.
- Se reduce del 20% al 10% de la base imponible positiva, el gasto deducible aplicable por microempresas en concepto de compensación tributaria por las dificultades inherentes a su dimensión. No obstante, en virtud de lo previsto en el régimen transitorio, para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018, la reducción se fija en el 15%.
- Ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia hornitzeko emandako zenbatekoen gauzatzeak dituen baldintzak aldatzen dira kapitaleko partaidetzen bitartez enpresa-proiektu berri batean hasierako etapan edo bere garapen etapan zuzentzen denean. Besteak beste, proiektu bakoizteko onartutako
- Se modifican los requisitos en la materialización de las cantidades dotadas a la reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva, cuando se destine a participar en el capital de un nuevo proyecto empresarial en su etapa inicial o en su fase de desarrollo. Entre otras cosas, el importe máximo de la inversión



gehienezko inbertsioa 100.000 eurotik 300.000 eurotara pasatzen da.

admisible por proyecto pasa de 100.000 euros a 300.000 euros.

- Hobetu egiten da aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeagatik aplikatzen den pizgarria, kenkariaren aplikazioa errazten baita baldin eta inbertsioaren xede diren aktiboen zenbateko osoa 5 milioi euro baino handiagoa bada urtean.
- Aldatu egiten da zer kasutan aplikatuko den ikerketa eta garapen proiektuen edo berrikuntza teknologikoen finantzaketan parte hartzeagatik dagoen kenkaria. Horrela, esaten da finantzaketa hori hobarituko dela bakar-bakarrik baldin eta proiektu horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 89 ter artikuluan aipatzen diren entitate
- Se mejora el incentivo por inversiones en activos no corrientes nuevos al facilitar la aplicación de la deducción cuando el importe del conjunto de activos objeto de la inversión anual supere la cifra de 5 millones de euros.
- La deducción por la participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica se limita a la financiación de proyectos llevados a cabo por entidades innovadoras a que se refiere el artículo 89 ter de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Por otra parte, se especifica que la financiación se deberá realizar a



berritzaileak gauzatuak badira. Bestalde, zehazten da finantzaketa hori itzuli beharrik gabe egin beharko dela, eta entitate finantzatuak ez duela izango zertan itzuli jasotako kopuruak. Era berean, hainbat kautela eta muga ezartzen dira, kenkariaren kopuruarekin eta finantzatutako zenbatekoarekin lotuta, besteak beste.

- Zerga oinarri negatiboak konpentsatzeko garaian, muga gisa ezartzen da haien konpentsazioak ezingo duela urte bakoitzean gainditu haiek konpentsatu aurretik dagoen zerga oinarri positiboaren %50. Mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, muga hori %70koa izango da. Era berean, hamabostetik hogeita hamarrera zabalitzen da zerga oinarri negatibo horiek errenta positiboekin konpentsatzeko aukera emango duten zergaldien kopurua.

fondo perdido, sin que se pueda prever la devolución, por parte de la entidad financiada, de los fondos recibidos. Asimismo, se introducen diferentes cautelas y limitaciones relacionadas, entre otras, con la cuantía de la deducción y el importe financiado.

- Se limita la compensación anual de bases imponibles negativas, de manera que cada año no podrá superar el 50% de la base imponible positiva previa a dicha compensación. El límite será del 70% para las microempresas y pequeñas empresas. Al mismo tiempo, se amplía de quince a treinta el número de períodos impositivos en los que se podrán compensar dichas bases imponibles negativas con rentas positivas.



- Gutxitu egiten dira karga tasa batzuk:
 - %28ko zerga tasa orokorra %24ra pasatzen da; halere, behin-behinekoz, ezartzen den araubide iragankorraren arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako, zerga tasa %26koa izango da. Dena den, murriztapen horretatik kanpo gelditzen dira kreditu entitateak eta haiek parte hartzen duten talde fiskalak, zergak baterakuntza fiskaleko araubidean ordaintzen dituztenean; haiek %28an zergapetuta jarraituko dute.
 - %24ko zerga tasa orokorra %20ra pasatzen da; halere, behin-behinekoz, ezartzen den araubide iragankorraren arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra
- Se minoran algunos tipos de gravamen:
 - El tipo general del 28% pasa al 24%, aunque transitoriamente, de conformidad con el régimen transitorio que se establece, para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018 el tipo será del 26%. No obstante, quedan al margen de esta reducción de los tipos generales las entidades de crédito y los grupos fiscales de las que estas formen parte, cuando tributen en régimen de consolidación fiscal, que continuarán tributando al 28%.
 - El tipo general del 24% pasa al 20%, aunque transitoriamente, de conformidad con el régimen transitorio que se establece, para los periodos impositivos iniciados



bitarteko zergaldietarako, tasa %22koa izango da.

entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018 el tipo será del 22%.

- %21ean zergapetuta zeuden entitateei, bestetik, karga tasa bi puntu gutxituko zaie (%19); halere, behin-behinekoz, ezartzen den araubide iragankorraren arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako, gutxipena puntu portzental batekoa izango da (%20).

- Las entidades que venían tributando al 21%, por su parte, se les minorará el tipo de gravamen en dos puntos (19%), aunque transitoriamente, de conformidad con el régimen transitorio que se establece, para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018 la minoración sea de un punto porcentual (20%).

- Hidrokarburoen sorguneak eta lurrazpiko biltokiak miatu, ikertu eta ustiatzen dituzten entitateei karga tasa lau puntu portzental murrizten zaie, %35etik %31ra; halere, behin-behinekoz, ezartzen den araubide iragankorraren arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako, gutxipena bi puntu portzentualekoa izango da

- A las entidades que se dedican a la exploración, investigación y explotación de yacimientos y almacenamientos subterráneos de hidrocarburos se les reduce el tipo de gravamen en cuatro puntos porcentuales, del 35% al 31%, aunque transitoriamente, de conformidad con el régimen transitorio que se establece, para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de



(%33).

enero y el 31 de diciembre de 2018 la minoración sea de dos puntos porcentuales (33%).

- Aldaketak sartzen dira zergaren kuota likidoaren gainean kenkariak (salbu ikerketa eta garapen jarduerak eta berrikuntza teknologikokoak egiteagatik ezarritako kenkariak) aplikatzearen ondorioz ateratzen den gutxienero tributazioan:

- Se introducen modificaciones en la tributación mínima resultante de aplicar las deducciones, con excepción de las deducciones por actividades de investigación y desarrollo y de innovación tecnológica, sobre la cuota líquida del impuesto:

- gutxienero tributazio portzentaje orokorra %13tik %17ra igotzen da, nahiz eta araubide iragankor bat ezartzen den, zeinaren arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako, gutxienero kuota orokorra %15 izango baita. Dena den, kreditu entitateek eta haiek parte hartzen duten talde fiskalek aplikagarri duten gutxienero kuotak %13 izaten jarraituko du, baterakuntza fiskaleko araubidea zergapetuta daudenean.

- el porcentaje de tributación mínima aplicable con carácter general se incrementa del 13% al 17%, aunque se establece un régimen transitorio en virtud del cual, para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018, la cuota mínima aplicable con carácter general será del 15%. No obstante, la cuota mínima aplicable por las entidades de crédito y los grupos fiscales de las que formen parte, cuando tributen en régimen de



consolidación fiscal, continuará siendo del 13%.

- %11tik %15era igotzen da berariaz enpresa txikientzat eta mikroenpresentzat eta beste entitate batzuentzat aurreikusitako gutxieneko tributazioko portzentajeak; halere, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako araubide iragankor bat ezartzen da, eta gutxieneko portzentajea %13koa izango da.
- el porcentaje de tributación mínima previsto con carácter específico para pequeñas empresas y microempresas y otras determinadas entidades, se incrementa del 11% al 15%, aunque se establece un régimen transitorio en virtud del cual, para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018, el porcentaje mínimo aplicable con carácter general será del 13%.
- Proportzio berean handitzen dira aurreikusitako gutxieneko tributazioko portzentajei dagokienez, entitateak langile plantillaren batez bestekoa behin betiko izaeraz mantendu edo gehitzen duenean
- Se incrementan en la misma proporción los porcentajes de tributación mínima previstos para cuando la entidad mantiene o incrementa su promedio de plantilla laboral con carácter indefinido.
- Enplegua sortzeagatik dagoen
- Se modifica la deducción por



kenkaria aldatzen da, kalitatezko eta behar den bezala ordaindutako lan postuen sorrera bultzatzeko. Horrela, kenkari hau aplikatzeko, ezinbestekoa da mugarik gabe kontratatzen den pertsonaren soldata %170 handiagoa izatea kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbide-arteko gutxieneko soldata baino. Bestalde, kenkariaren zenbatekoa langilearen soldatarekin lotzen da, eta oro har ezartzen da urteko soldata gordinaren %25ekoa izango dela, 5.000 euroko mugarekin. Kontratatzan den pertsona lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoa bada, erregela horien arabera kalkulatzen den kenkaria bikoitza izango da.

creación de empleo para favorecer la creación de puestos de trabajo de calidad y debidamente remunerados. Para poder aplicarse la deducción, se exigirá que el salario de la persona contratada de manera indefinida sea superior al 170% del salario mínimo interprofesional vigente en el momento de la contratación. Por otra parte, la cuantía de la deducción se vincula con el salario de la persona trabajadora, siendo con carácter general del 25% del salario anual bruto con un límite de 5.000 euros. Cuando la persona contratada se encuentre incluida en alguno de los colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo, la deducción determinada de conformidad con las reglas anteriores se duplica.

- Ikerketa eta garapenarekin edo berrikuntza teknologikoarekin zer ikusirik ez duten kenkariaren baturarako aurreikusitako muga
- El límite previsto para la suma de deducciones distintas de las correspondientes a investigación y desarrollo e innovación



kuota likidoaren %45etik %35era jaisten da muga.

tecnológica pasa del 45% al 35% de la cuota líquida.

- Muga bat jartzen zaie ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko jarduerengatik ezarritako kenkariei: %35eko kenkarien muga bateratua aplikatu ondoren ateratzen den kuota likidoaren soberakinaren gaineko %70.
- Hamabostetik hogeita hamarrera zabaltzen da kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren diru zenbatekoak kendu ahal izateko zergaldien kopurua. Era berean, epea zabaltzen da zergapetze bikoitza saihesteko kenkariari dagokionez ere.
- Ordainketa zatikatu bat egiteko betebeharra sartzen da; obligazio horretatik salbuetsita gelditzen dira mikroenpresatzat edo enpresa
- Se establece un límite para las deducciones por actividades de investigación y desarrollo e innovación tecnológica, que se fija en el 70% sobre el exceso de cuota líquida que resulte una vez aplicado el límite conjunto de deducciones del 35%.
- Se amplía de quince a treinta el número de períodos impositivos en los que se podrán deducir las cantidades no deducidas por insuficiencia de cuota íntegra. Esta ampliación del plazo se establece también en relación con la deducción para evitar la doble imposición.
- Se incorpora la obligación de efectuar un pago fraccionado, de la cual quedan excluidas las entidades que tengan



txikitzat hartutako entitateak eta 56. artikularen 4. apartatuan (inbertsio kolektiboko erakundeak) eta 5. apartatuan (borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak) jasotako karga tasetan zergapetuta dauden entitateak. Ordainketa zatikatua urte bakoitzeko urriaren lehendabiziko 25 egun naturaletan, eta aitorten epea urriaren 1ean amaituta duen azken zergaldiko zerga oinarriaren %5 izango da.

consideración de microempresa o pequeña empresa y las que tributen a los tipos de gravamen previstos en los apartados 4 (instituciones de inversión colectiva) y 5 (fondos de pensiones y entidades de previsión social voluntaria) del artículo 56. El pago fraccionado se deberá efectuar en los 25 primeros días naturales del mes de octubre de cada año, y será del 5% sobre la base imponible del último periodo impositivo cuyo plazo de declaración hubiese vencido a 1 de octubre.

Osatu nahi da **Gipuzkoako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzeko lana**. Horrela gehitzen dira eskubideei uko egiteko oinordetza-itunek eta komisario bidezko oinordetzek jasotzen duten zerga tratamenduarekin lotutako aldaketak. Horretarako, zenbait egokitzapen proposatzen dira, bereziki Oinordetza eta Dohaintzen

Por otro lado, se pretende completar la **adaptación del sistema tributario de Gipuzkoa a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco**, incorporando las modificaciones relativas al tratamiento tributario de los pactos sucesorios de renuncia y de la sucesión por comisario. Para ello, se proponen diversas adaptaciones, principalmente en el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, pero



gaineko Zerga, baina baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergan, eta Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan ere.

también en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas y en el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Aplikazioan izan diren arazoak

Problemas de aplicación

Foru arau honen aplikazioak arazoak edo zalantzak eragin ditu zenbait gairen inguruan, haien araudia berriro aldatu beharra ekarri dutenak, eta, horrez gain, inkongruentziak utzi ditu agerian zerga sisteman, hura egokitzea behartu dutenak. Hori guztia, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren bitartez egingo da.

A raíz de esta norma foral, por un lado algunas cuestiones han suscitado problemas o dudas que han requerido su nueva modificación, y por otro se ha observado que se ha producido alguna incongruencia en el sistema tributario que ha sido necesario adecuar. Todo ello se ha hecho a través de la Norma Foral 3/2019, de 11 de febrero, de aprobación de determinadas medidas tributarias para el año 2019.

Zehazki, gai hauek jorratu behar izan dira:

En particular, se trata de las siguientes cuestiones:



- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, hirugarren errentamendu mota bat sortu izanak (ohiko bizilekua ez den etxebizitza erabilerarena), beharrezko egin du araudia areago egokitzea errentamendu horietatik eratortzen diren etekinak etekin irregulartzat hartu daitezzen, eta tratamendu hori kapital higitzaileen etekintzat hartzen diren azpierretramentuetara ere zabaltu dadin.
- En el impuesto sobre la renta de las personas físicas, como consecuencia de la creación de una tercera categoría de arrendamientos (de vivienda de uso distinto al de residencia habitual), ha sido necesario realizar algunos ajustes más en la normativa, como el reconocimiento de la consideración de rendimientos irregulares derivados de dichos arrendamientos, así como la extensión del mismo tratamiento en el caso de subarrendamientos considerados rendimientos de capital mobiliario.
- Hazkunde ahalmen handiko entitateak finantzatzeagatik araututako kenkarian –sorrera berriko entitate berritzaileen akzio edo partaidetzak harpidetzeagatik aplikatzen da–, berriro definitu behar izan da, argiago uzteko, zer beharkizun
- En la deducción por financiación a entidades con alto potencial de crecimiento correspondiente a la suscripción de acciones o participaciones en entidades innovadoras de nueva creación, ha sido necesario redefinir de forma más clara el requisito



eskatzan den entitate bat sorrera berrikotzat hartu dadin. Horrela, aurrerantzean entitate bat sorrera berrikoa dela joko da, haren eraketatik 5 urte baino gehiago igaro ez direnean.

requerido para considerar una entidad como de nueva creación. Así, en adelante para tener tal consideración será necesario que no hayan transcurrido más de 5 años desde su constitución.

- Sozietateen gaineko zergaren barruan, eta Espainiako eta Europako interes ekonomikoko taldeen eta aldi baterako enpresa elkarten ordainketa geroratuekin lotuta, zehaztu behar izan da ordainketa zatikatua egiteko obligaziorik ez dela egongo lurralde espainiarrean egoiliar diren bazkideei egozgarri zaien zerga oinarriaren zatiari dagokionez.
- Bestalde, aldaketak sartu dira Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren seigarren xedapen iragankorrean, zeinak arautzen baitzuen nola aplikatu behar ziren 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako lehen zergaldiaren hasieran kendu
- En el impuesto sobre sociedades, en relación con los pagos fraccionados de las agrupaciones de interés económico, españolas y europeas, y de las uniones temporales de empresas, ha sido necesario especificar que no existirá obligación de ingreso del pago fraccionado respecto a la parte de la base imponible imputable a los socios residentes en territorio español.
- Por otro lado, se ha modificado la disposición transitoria sexta de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, que regulaba la aplicación de los saldos de deducciones pendientes de aplicación al comienzo del primer



gabe zeuden saldoak. Horretarako, xedapenaren edukian txertatu dira 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei dagokienez egindako erreforma fiskalak aplikatu gabeko kenkarien saldoen gainean dituen ondorioak, lehenago hogeita seigarren xedapen iragankorrean jasota zeudenak. Horrela, erregulazioa argiago geratu da, eta prezeptu bakar batean integratu da.

periodo impositivo iniciado a partir del 1 de enero de 2014, incorporando a su contenido los efectos sobre los saldos de deducción pendientes de aplicación que surgen como consecuencia de la reforma fiscal llevada a cabo respecto a los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2018, que anteriormente se recogía en la disposición transitoria vigesimosexta. De esta forma la regulación ha quedado más clara e integrada en un solo precepto.

Araugintza garatzeko beharrak

1/2018 Foru Arauaren garapen beharrei dagokienez, aipatu beharra dago 2018. urtean onartu zela abenduaren 27ko 31/2018 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen dituen eta ondare

Necesidades de desarrollo normativo

En lo que se refiere a las necesidades de desarrollo normativo de la Norma Foral 1/2018, cabe hacer referencia a la aprobación del Decreto Foral 31/2018, de 27 de diciembre, por el que se modifican el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el Reglamento del



elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzeko 2019an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituen (2018/12/31ko GAO).

Impuesto sobre Sociedades, y se aprueban los coeficientes de actualización aplicables en 2019 para la determinación de las rentas obtenidas en la transmisión de elementos patrimoniales en ambos impuestos (BOG 31/12/2018).

Foru dekretu horren bitartez garatu dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduetan 1/2018 Foru Arauak sartu zituen aldaketak, erregelamendu horien edukia aldaketa horietara egokitzeko.

A través del citado decreto foral se han desarrollado las modificaciones introducidas por la Norma Foral 1/2018 en el impuesto sobre la renta de las personas físicas y en el impuesto sobre sociedades, adecuando el contenido de los reglamentos de ambos impuestos a dichas modificaciones.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan sartutako aldaketei dagokienez, nabarmentzeko modukoa da ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, langile lekualdatuen araubide berezi berria garatzen duela, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen

En relación con las modificaciones relativas al Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cabe señalar el desarrollo, con efectos a partir de 1 de enero de 2018, del nuevo régimen especial para personas trabajadoras desplazadas recogido en el artículo 56 bis de la Norma Foral 3/2014, de 17



Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak 56 bis artikuluan jasotakoa.

de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Araubide berria, aurrekoan ez bezala, urteko autoliquidazioaren aurkezpenarekin egin beharreko aukera gisa ulertzeak berekin ekarri du aurreko araubidearen xedapenak edukirik gabe uztea. Araubide berria garatze aldera, zehaztu da zer kasutan hartzen diren lanak bereziki kualifikatutzat, eta zer jarduera diren, araubidearen aplikazioari begira, ikerketa eta garapen jarduerak, edo jarduera zientifiko, tekniko edo finantzarioak. Horrez gain, ezarri da zer beste gastu hartzen diren, araubide berezia aplikatzearen ondorioz, lan etekinen gastu kengarritzat.

El hecho de que el nuevo régimen, a diferencia del anterior, se articule como una opción a ejercitar anualmente con la presentación de la autoliquidación, ha motivado que se dejen sin contenido las disposiciones reguladoras del anterior régimen. En desarrollo del nuevo régimen, se han especificado los supuestos en los que los trabajos prestados se entienden como especialmente cualificados y se han determinado cuáles son las actividades de investigación y desarrollo, científicas o de carácter técnico o financiero a efectos de su aplicación. Además, se ha precisado cuáles son los gastos que, con motivo de la aplicación del régimen especial, tienen la consideración de gasto deducible adicional de los rendimientos del trabajo.



Jarduera ekonomikoen esparruan, erregelamenduan sartu dira lehen sektoreko jardueren etekin garbia (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza jarduerena) zehazteko garaian zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan aplikagarri diren erregela bereziak, betiere aipatutako 1/2018 Foru Arauak sartutako aldaketetara egokituak. Horrek ez du berekin ekarri araudi aplikagarria aldatzea, haren kokalekua egokitu baino ez da egin aipatutako modalitatearen erregulazioari koherentzia ematearren.

Kapital higiezinaren etekinen erregulazioari dagokionez, 1/2018 Foru Arauak arlo honetan sartutako aldaketen ondorioz, egokitu dira bai artikuluen izena bai bertan egiten diren arau-igorpenak.

En materia de actividades económicas, se han incorporado al reglamento las reglas especiales de la modalidad simplificada del método de estimación directa aplicables para la determinación del rendimiento neto de las actividades del sector primario (agrícolas, ganaderas, forestales, y pesqueras), una vez adaptadas a las modificaciones introducidas a través de la Norma Foral 1/2018 anteriormente citada. Ello no ha supuesto una modificación de la normativa aplicable, sino la mera adecuación de su ubicación, dando coherencia al conjunto de la regulación relativa a dicha modalidad.

Por lo que respecta a la regulación de los rendimientos del capital inmobiliario, se han ajustado la denominación del artículo y las remisiones contenidas en el mismo, con motivo de las modificaciones incluidas en este campo por la mencionada Norma Foral 1/2018.



Alderdi jakin batzuk arautu dira hazkunde ahalmen handiko entitateak finantzatzegatik aplikatzen den kenkariarekin lotuta. Zehazki, entitate berritzaileetan inbertitzeagatik aplikatzen den kenkariari dagokionez, zehaztu da zer organok egin behar duen txosten arrazoitua haren bidez frogatzeko entitate eskatzailea badela entitate berritzailea etorkizun hurbilean produktu, zerbitzu edo prozesu berriak garatzeagatik edo, sektoreko teknikaren egoerarekin alderatuta, horiek nabarmen hobetzeagatik, inplizituki porrot teknologiko edo industrialaren arriskua daramatenean. Eskaera hori egiteko prozedura ere finkatu da.

Orobat, hazkunde prozesuan dauden entitateetan inbertitzeagatik araututako kenkariari dagokionez, zehaztu da zer eratan tramitatu behar

Se han regulado determinados aspectos relacionados con la deducción por financiación a entidades con alto potencial de crecimiento. Concretamente, en relación con la deducción aplicable por las inversiones efectuadas en entidades innovadoras, se ha determinado el órgano competente para emitir el informe motivado acreditativo del carácter de entidad innovadora de la solicitante, por desarrollar en un futuro inmediato productos, servicios o procesos nuevos o mejorados sustancialmente en comparación con el estado de la técnica en su sector y que llevan implícito un riesgo de fracaso tecnológico o industrial, así como el procedimiento para llevar a cabo tal solicitud.

Asimismo, en relación con la deducción aplicable por las inversiones efectuadas en entidades en proceso de crecimiento, se ha



den, kenkari horren aplikazioari begira, Administrazioa aurrez lotesteko prozedura. Horrela, ezarri da tramitazio hori abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretuak, zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duenak, azken xedapen bakarrean jasotakoa izango dela. Horrez gain, prozedura hori hasteko eskaerak izan behar duen edukia ere zehaztu da.

Azkenik, lanaren etekinak atxikitzeko erregelen kasuan, erregela horiek egokitu dira finkatuta uzteko zein unetan kalkulatu behar den atxikipen portzentaje berri bat langile lekualdatuen araubide berezia aplikatzeko eskubidea galtzen denean.

Sozietateen gaineko Zergaren

concretado la forma de tramitación del procedimiento de vinculación administrativa previa exigido para la aplicación de la deducción, que será la prevista en la disposición adicional única del Decreto Foral 49/2006, de 5 de diciembre, por el que se desarrollan los procedimientos relativos a consultas tributarias escritas y propuestas previas de tributación y se crea la Comisión Consultiva Tributaria, además de concretar el contenido de la solicitud de inicio de dicho procedimiento de vinculación.

Por último, se han ajustado las reglas de retención de rendimientos del trabajo de cara a fijar el momento de cálculo de un nuevo porcentaje de retención cuando se pierda el derecho a la aplicación del régimen especial de personas trabajadoras desplazadas durante el periodo impositivo.

En relación con el Reglamento del



Erregelamenduan berrikuntza hauek sartu dira:

Aurrenik, ezarri da, batetik, zer prozedura aplikatu behar den Zerga Administrazioari proposatzeko finantza gastu garbien kengarritasunak zergaren foru arauaren 25 bis artikuluko 8. apartatuan duen muga igo dadin, eta, bestetik, zer dokumentazio erantsi behar zaion proposamenari.

Gorago aipatu dugun 1/2018 Foru Arauak Patent Box delakoaren erregulazioan sartu dituen aldaketak direla-eta, indarrik gabe utzi da 13 bis artikulua, jabetza intelektual edo industrialaren ustiatzeagatik murriztapenerako eskubidea zuten aktiboak erregelamenduz garatzen zituena.

Impuesto de Sociedades, las novedades que se han introducido han sido las siguientes:

En primer lugar, se ha especificado el procedimiento para someter a la consideración de la Administración tributaria una propuesta para la aplicación de un límite superior a la deducibilidad de los gastos financieros netos, que se regula en el apartado 8 del artículo 25 bis de la norma foral del impuesto, y la documentación a adjuntar a dicha propuesta.

Se ha derogado el artículo 13 bis que desarrollaba reglamentariamente los activos con derecho a reducción por explotación de propiedad intelectual o industrial, al haber perdido su virtualidad como consecuencia de las modificaciones introducidas por la citada Norma Foral 1/2018 en la regulación del Patent Box.



Enplegua sortzeagatik aplikatzen den kenkarian, aldaketa teknikoak egin dira arauak kenkariaren erregulazioan sartu dituen aldaketen ondorioz, eta salbuespen bat arautu da kontratatutako langilearen soldata mantentzeko edo igotzeko derrigortasunari dagokionez, lanaldiaren murrizketa jakin batzuetan soldata ere murrizten denean.

En la deducción por creación de empleo, se han realizado modificaciones de carácter técnico como consecuencia de los cambios introducidos en la regulación de la deducción a nivel normativo, y se ha regulado una salvedad respecto a la exigencia de mantenimiento o aumento del salario de la persona contratada, para el caso de reducción de salario como consecuencia de determinadas reducciones de jornada.

Ordainketa zatikatua erregelamenduz garatu da, eragiketa bolumenaren arabera tributatzen duten zergadunentzat bereziki, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena eman zaio ordainketa zatikatuaren ofiziozko likidazioa ezartzeko.

Se ha desarrollado reglamentariamente el pago fraccionado, en particular para el caso de contribuyentes en proporción al volumen de operaciones, y se ha habilitado a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para establecer el giro de oficio del pago fraccionado.



Sortutako ondorioak

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerentzat zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren metodoa (PFEZ).

Neurri hau 2017/01/01ean sartu zen indarrean.

Aurreko ekitaldian 30.000 euro azpiko eragiketa bolumena izan zuten jarduerak, beren etekin garbia kalkulatzeko %75eko gastu forfaita aplikatzen zuten lortutako sarreren gainean, eta ezin zuten beste ezein gasturik kendu. Bestalde, aurreko ekitaldian eragiketa bolumen hori gainditzen zuten zergadunek %35eko forfaita jarraituko zuten aplikatzen sarreren eta gastuen arteko diferentziaren gainean.

Aldaketa horrek ez zien eragin

Efectos producidos

Modalidad simplificada del método de estimación directa de las actividades agrícolas y ganaderas (IRPF).

Esta medida entró en vigor con efectos a 01/01/2017.

Las actividades que en el ejercicio anterior hubieran tenido un volumen de operaciones inferior a 30.000 euros, pasaban a determinar su rendimiento neto aplicando un forfait de gasto del 75% sobre los ingresos obtenidos, con exclusión de la deducibilidad de cualquier otro gasto. Mientras que, las actividades que en el ejercicio anterior hubieran superado dicho importe de volumen de operaciones, continuaban aplicando un forfait del 35% sobre la diferencia entre ingresos y gastos.

Esa modificación no afectó a todas



nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera guztiei: batzuk, jadanik, bere etekin garbia kalkulatzeko %75eko forfaita aplikatzen zuten lortutako sarreraren gainean, 2016-12-31ra arte aplikagarria izan zen erregimen iragankor bati esker. Eta 2017an, nola bere eragiketa bolumena 30.000 euro baino txikiagoa izan zen, berdin tributatzen jarraitu zuten. Era berean, beste batzuk bere etekin garbia kalkulatzeko %35eko forfaita aplikatzen zuten lortutako sarreraren eta gastuen arteko diferentziaren gainean, eta 30.000 euro baino handiagoko eragiketa bolumena izatean, berdin tributatzen jarraitu zuten.

las actividades agrícolas y ganaderas: algunas de ellas ya determinaban el rendimiento neto aplicando un forfait del 75% sobre los ingresos, en virtud de un régimen transitorio que había sido de aplicación hasta el 31-12-2016. Y en 2017, al tener menos de 30.000 euros de volumen de operaciones seguían tributando de la misma manera. Igualmente, había otras actividades que ya determinaban el rendimiento neto aplicando un forfait del 35% sobre la diferencia de los ingresos y gastos, y al tener un volumen de operaciones superior a 30.000 euros siguieron tributando de la misma manera.

Erregimen bakoitzean tributatu duten jardueren bilakaera honakoa izan da:

La evolución de las actividades que han tributado en cada uno de los regímenes ha sido la siguiente:

**%75eko gastua aplikatzen dute
Aplican gasto del 75%**

	Jarduera kopurua Número de actividades	Sarrerak Ingresos	%75eko gastua Gasto del 75%	Etekin Rendimiento
2016	1.253	12.211.905	9.158.929	3.052.976
2017	2.100	14.123.887	10.592.916	3.530.972

eurotan/en euros



**%35eko murrizpena aplikatzen dute
Aplican reducción del 35%**

	Jarduera kopurua Número de actividades	Sarrerak Ingresos	Gastuak Gastos	Aldea Diferencia	%35eko murrizpena Reducción 35%	Etekina Rendimiento
2016	1.579	40.740.189	31.067.664	9.672.525	3.661.786	6.010.739
2017	697	38.158.553	28.325.790	9.832.763	3.572.546	6.260.218

eurotan/en euros

Etekin garbia kalkulatzeko sarreren gainean %75eko forfaita aplikatuz kalkulatzen duten nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera kopurua nabarmen igo da. 2016an 1.253 zeuden, 2017an 2.100 izatera pasaziren.

Halere, horren eragina aitortutako etekinetan askoz txikiagoa izan da. Hori horrela da, erregimen batetik bestera pasatzen diren jarduera askok aitortzen dituzten sarrerak oso txikiak direlako.

PFEZren gainerako aldaketak
2018/01/01eab sartu ziren indarrean. Epealdi horretako aitorpenak 2019/04/15 eta 2019/07/01 bitartean aurkeztu dira.

El número de actividades agrícolas y ganaderas que determinan el rendimiento neto aplicando un forfait del 75% sobre los ingresos aumenta de manera significativa. En 2016 había 1.253, y pasan en 2017 a 2.100.

Sin embargo, su efecto en términos de rendimientos declarados ha sido mucho menor. Ello se debe a que muchas de las actividades que pasan de un régimen a otro declaran ingresos muy pequeños.

El **resto de modificaciones del IRPF** entraron en vigor el 01/01/2018. Las declaraciones de ese periodo impositivo se han presentado entre el 15/04/2019 y el 01/07/2019.



Txosten hau prestatu den datarako, oraindik bukatu gabe daude aitortutako datuen garbiketa eta egiaztatze prozesuak. Ez dago eskuragarri aitorten guztien informazioa eta ezinezkoa da ezarri diren aldaketak izan duten eragina zehaztea.

Sozietateen gaineko zergaren aldaketa esanguratsuenak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sartu ziren indarrean. Zergaldi horretako aitortenak 2019ko uztailaren 1etik uztailaren 26ra aurkeztuko dira; beraz, oraindik ez dago arau aldaketa horien eraginari buruzko informaziorik.

Laburbilduz

Aztertutako foru araua eraginkortasunez bete da, inongo

A fecha de elaboración de este informe aún están sin finalizar los procesos de depuración y contraste de los datos declarados. No se dispone de la información de la totalidad de las declaraciones y es imposible determinar los efectos de las modificaciones implementadas.

Las **modificaciones más significativas del impuesto sobre sociedades** entrarán en vigor para periodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2018. Las declaraciones de ese periodo impositivo se presentarán entre el 1 de julio y el 26 de julio de 2019, por lo que todavía no se dispone de información sobre el efecto de esos cambios normativos,

En resumen

La norma foral analizada se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva,



arazorik gabe eta traba berezirik gabe bete.

sin ningún tipo de problemas en su aplicación y sin ningún contratiempo en especial.

Lortutako helburuei dagokionez, lehenago aipatu den bezala, zerga aitorpenen aurkezpen epeak ezinezkoa egiten du ezagutzea zein izan den proposatutako helburuekin izan den lotura.

Respecto a los objetivos alcanzados, señalar, tal y como se ha comentado con anterioridad, los plazos de presentación de las declaraciones tributarias impiden conocer la correspondencia con los objetivos propuestos.

Bestalde, beharrezkoak izan diren erregelamenduzko garapen aurrera eramán dira, eta haren aplikazioan ez da gertatu inolako judicializazio kasurik.

Por otro lado, se han llevado a cabo los desarrollos reglamentarios necesarios, y hasta la fecha no ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.